


...eta

KittO!

835 zkia.
2013-11-8



Eibar Berreigar berreraikitzen



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta iritxi
gure webgunera



• Miopia ebakuntzak femtosegundoko laserrarekin.

Plaza Barria, 2. 2º
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com



IRAZABAL
clínica dental

Antonio Murillo doktorea

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

Ainhoa Zulueta doktorea

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

Susana Sierra doktorea

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

Maitane G. Iñiguez doktorea

ODONTOLOGIA OROKORRA, ODONTOPEDIATRIA

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostegunera: 08.00-22.00

Zapatuetan: 10.00-14.00

IRAZABAL HORTZ-KLINIKA

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com



ASTEAN ESANAK

"Labanadunen arteko borroka da krisi hau, eta labankada gehien ematen dituenak edukazioa eskatzen dio besteari. Egun agintzen dutenak lehengoak bezain totalitarioak dira, baina trajea eta gorbatarekin"

(MIGUEL SANCHEZ OSTIZ, IDAZLEA)

"Euskal Herriko mendietan umoretsu egoten da jendea, jator. Aconcaguan, ordea, umore txarrak ohikoak izaten dira, eta elkarren arteko liskarrak ere bai. Tentsioak eta urduritasunak eragiten dute giro txar hori"

(JUANJO GARBIZU, MENDIZALEA)

"Masendako kultur objektuak ziztu bizian kontsumitzen dira, zaporeatu barik, eta ia eraginik ez dute gure pentsamenduan. Benetako kulturak denbora eta ulertzeko borondatea eskatzen du; bestela, topikoan murgilduko gara"

(FRANCESC TORRALBA, FILOSOFOA)

"Datuek diote fraudea Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren kopurura iristen dela; estimazio horiek, gainera, errealitatetik behera daude. Fraude hori %15 jaitsiz gero, ez genuke inolako murrizketarik egin beharko"

(IGNACIO ZUBIRI, HAZIENDA KATEDRADUNA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

BADAKI BOST.- Norbait inuzentea ez dela adierazteko. "Aspaldi badaki horrek bost, ume agertu arren".

EZ DAKIZU/DAKIK/DAKIN ASKO.- Ezustekoren baten berri emateko erabiltzen da. "Ez dakik asko gaur ze pasau jatan!".

JAKIN ERAGIN.- Jakinarazi, aditzera eman. "Ez eban denporarik galdu bere zorionaren poza jakin eraitzeko lagun saskarrari".

JAKIN-MAIÑA.- Zerbaitetarako trebetasuna, abilezia. "Gauza guztiak dake euren jakin-maiña".

eskutitzak

- OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarrik

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunikizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitetzke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Berreibar

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunikizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria



Bakiaren aldeko olatua La Sallen

Urtarrillaren 30ian Mahatma Gandhiren heriotzaren urteurrenaren harira mundu maillan gogoratu zan Bakiaren aldeko eguna eta, urtero lez, Azitaingo La Salle ikastetxeko ikasle, irakasle eta bihargiñak bakiaren aldeko keiñua egiñ eben patixuan, bakiaren aldeko "olatua" osatuta. Holan agurtu zittuen aurreko aste osuan landutako sensibilizaziñorako jarduerak.



Bikote bi Gipuzkoako mus kanporaketara

Euskal Herriko Mus Federaziñuak antolatuta, martxan dagan Euskal Herriko V. Mus Txapelketako kanporaketia jokatu eben 11 bikotek Klub Deportibuan urtarrillaren 27xan eta hórretatik bi Seguran hillaren 23an izango dan Gipuzkoako kanporaketara juateko sailkatu dira: Jon Altunak eta Iñigo Guruze-tak osatutakua bata eta Iñigo Loidik eta Ander Lizarrak osatutakua bestia. Seguran aurrera egittia lortzen badabe, martxuaren 9xan Agurainen (Araba) jokatuko dan finalerako txartela eskuratuko leukie.



LEIRE ITURBE

Argentinatik Udalera bisitan

Proyde-Proega Gobernu-z Kanpoko Erakunde-ko ordezkariak Eibarko udaletxian bisitan izan dira aste honetan bertan, Eibarko Udalak emoten daben laguntasunari esker Argentinan garatzen diharduen hezkuntza-proiektuaren barri emoten. Argentinan proiektuaren arduraduna dan Nicolas Chamorro alkatiarekin batu zan amaittu daben proiektuaren lehelengo fasian lortu dittuen emaitzak aurkezteko eta aurtent bertan ekingo detsenaren helburuak zeintzuk diran azaltzeko. Proyde-Proegak garatzen diharduan proiektuak arazoz beteta dagan Córdoba-ko kanpoaldeko auzuetako batian gizarte-bazterketa larrixan daguazen gaztieri laguntzen detse, horretarako sustapen integralerako programia garatuta. Chamorrok azaldukatuari jarraituta, Gaz-



tien Etxiaren lehelengo zatixa jasota dago eta honezkero hainbat programa bertan eskintzen hasitta dagoz. Bigarren fasian, bestiak beste, gizarte-hezkuntzarako taillar barrixak martxan ipintzeko eta andrazkuen arteko topaleku barrixa preparatzeko asmua dake. Aurten hasiko dan proiektuarendako 64.096 euro emon dittu Eibarko Udalak (2012. urteko deialdixaren barruan). Hortik aparte, 2011. urtian beste 63.475 euro emon zittuan proiektuaren lehelengo zatixa garatzeko.

Argatxako umiak Ipuruan

Eibar foball taldeko jokalarixen entrenamentua ikusten egon dira Argatxa ikastolako 5 urteko ikasliak oin dala egun batzuk eta, erretratuan ikusi leikian moduan, edarto pasau eben. Umiak adi-adi segidu zittuen jokalarixen juan-etorrixak eta, zeñiek jakin, igual euretako bateren batek etorkizunian foballari izatia erabagiko dau. Irakasliak eskerrak emon nahi detsez "Eibar foball taldekueri eta Alexen aitxixari, egun zoragarrixarengaittik".

Kexati swaps-en azalpenarekin

Bilduko ordezkariak "etsigarri" modura kalifikau dittue Iñaki Arriolak "swap" direlakuen inguruan emondako azalpena eta esandakuak "bere burua zuritzeko ahalegiñ hutsa" izan dirala pentsatzen dabe: "Zelan leike Arriola jaunak 8 millioi euroko eragiketaren barri ez izatia, are gehixago eragiketak 900.000 euroko galeria eragin dabenian? Arriolak behiñ eta barriz ukatu eban kontratautako 'swap'-en gaiñian zeozer zakixanik eta IMESA-ko gerentiaren gaiñera bota eban 'swap' hórrek kontratau izanaren ardura osua, eragiketak gerentia, beste iñork ezer jakin barik egin zittuala azpimarratuta".



Arriolak zeozer zakixanik ukatu dau.



LEIRE ITURBE

Eibartarrak San Blas opillak bedeinkatzen

San Blas eguna ospatu genduan domekan eta, ohittuari jarraituta, eliza guztietan meza berezixak egin zittuen opillak bedeinkatzeko. San Andres elizan egindak

jende mordua batu eban urteroko lez eta, erregular, mezatik urtetzian parian daguzen eskulturekin batera erretratua etara eben askok.

San Juan Bosco ospatzen

Erretratuan ikusten ditzuzuenak aurreko zapatuan alkarrekin bazkaldu eben Eskarne jatetxian: zinema aretuetako bihargiñen zaindarixa dan San Juan Bosco eguna urtarrillaren 31 izan zan eta, urteroko lez, Eibar eta inguruko zine operatzailliak, biharrian diharduenak zein jubilautakuek ez eben kale egiñ urteroko zitan.



LEIRE ITURBE

autuan

SANTA AGEDA MEZIA

Udaletik aditzera emon dabenez, San Roman ermittan Santa Ageda ospatzeko ohiko mezarik ez da egingo aurten, "mezia emon bihar eban Xabier Zubizarreta abadia gaixorik dagualako".



LAB-EN MOBILIZAZIŦNUAK

Debarreneko LAB-eko delegauak mobilizaziñuak deittu dittue datozen egunetarako: hillan 18xan Industrias Mail parian konzentraziñua egingo dabe (11.00etan). Eta 27xan Eibarko egoitzan batzarra egingo dabe 10.00etatik aurrera, bestiak beste kanpaiñari jarraipena zelan emongo detsen pentsatzeko. Bide batez, 12.00xetan Jaz Zubiaurre parian alkarretaratzia egingo dabe.

eitek
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena

www.eitek.net

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

MUGICA FUNERARIA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- ↳ Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurrenako eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko traslagoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951



Karmelo Urdangarin

Arraza askotakoak eta euskaldunak

Orain dela gutxi kaleratutako Eibarko populazioaren erroldak, beste gauza batzuen artean erakusten duenez, herrian bizi diren biztanle kopuruaren egonkortasuna erakusten du -27.500 biztanleren bueltan- eta baita gero eta atzerritar gehiago daudela gurekin -bi urtetan 1.600 lagunetik 1.900era igo baitira-. Horri erroldan ez daudenak gehitzen badizkiogu, guztiaren %8'9ra heltzen dira. Hor diren atzerritarrak 65 herrialdeetakoak badira ere, marokoarrak gailentzen dira (648) eta, eurekin, portugaldarrak (121), kolonbiarrak (109), pakistandarrak (98), boliviarrak (95), Dominikar Errepublikakoak (91), brasildarrak (74), ekuatoriarrak (67), argeliarrak (53), txinatarrak (44) eta nepaldarrak (39). Mikel Navarrok (UPV-EHU) orain dela urte batzuk argitaratu zuenez, Eibarko biztanleen artean gehiengo da, behin jubilatuta ere, eibartarren artean jarraitzen duena bere jaioterrira bueltatu beharrean, eta horrek asko laguntzen dio gure erroldak duen egonkortasunari, bestelako ezaugarriekin batera. XXI. mendea aurrera doan neurrian, zelakoak izango dira eibartarrak behin erlijio eta kultur sinesmen arteko aldeak atzera geratzen direnean? Ez dago urrutira joan beharrik esateko eibartarrak arraza askotakoak eta, gainera, euskaldunak izango direla. Historikoki izan den moduan, Eibarko bertokoen izaera eta bizimoduari egokitutako prozesuaren ondoren.



Ospitalaren proiektua atzeratuta

Astelehenian batu zan Miguel de los Toyos alkatea Jon Darpón Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuarekin, Eibarren ospitala jasotzeko proiektua zertan dan argitzeko asmoz, baiña billeria amaittu eta gero argi geratu zan puntu bakarra aurten biharrerri ekiteko aurrekonturik ez daguala eta, beraz, 2013an ez dittuela biharrak hasiko izan zan. Alkatiak esandakuaren arabera, sailbu-

ruak ez dau atzera bota Mendiguren y Zarraua enpresiak bete eban tokixan ospitala jasotzeko proiektua, hau da, ez dau esan egingo ez danik, baiña biharrak aurten hasteko konpromisorik be ez dau hartu. Gauzak holan, eta hillebete eta erdiko tartian-edo, 2013rako aurrekontuak osatu eta onartu bittartian, autuaren gaineko bestelako nobedaderik ez dabe espero.

Jeltzaliak PSE-rekin hasarre

Eva Juez jeltzalien bozeramailliak aurreko bariakuan prentsaurrekua emon eban, aurreko presupuestuak onartzeko botaziñuari begira egindako hitzarmenak jasotzen dittuanak lortzeko sozialisten borondate eza salatzen. Bozeramaillien berbetan, "urtebete baiño gehixago pasau da 2012ko aurrekontuen botaziñuan EAJ-k abstenziñuaren bidia hartzeko PSE-rekin hitzarmena siñatu genduanetik eta adostutakua garatzeko borondaterik ez detsagu ikusten PSE-ri. Lau akordixuetatik ez da bakarra bete, baiña emondako berbia ez betetziak emoten daben itxuratik haratago, larrixena etengabe behera doiazan indikadore sozio-ekonomikuak agerixan lagatzen daben egoerari heltzeko alkatetzak dakan gaitasun eza da".

Agerraldixan, 2012ko presupuestuak onartzeko plenuan jeltzaliak abstenitzeko arrazoia sozialistekin adostutako hitzarmena izan zala go-



Errebalen merkataritza gunerako lizitaziñua gogora ekarri zittuan Eva Juezek, bestiak beste.

goratziarekin batera, "ekonomixiari bultzadia emoteko asmuarekin" egindako eta bertan jasota daguezen lau puntuak atzera be gogora ekarri zittuan Juezek: Eibarrerako Plan Estrategikua (azkena 1998kua da), Errebalen merkataritza gunerako lizitaziñua, anbulatorixo parian trafikua lur azpittik pasatzeko bidaiek zabaltzeko ikerketia egittia eta, azkenik, Matsarixan lurra lortzeko pausuak emotia.



IKT ikastarua

Debegesak teknologixa barrixen gaineko ikastaro praktikuaren bigarren deialdixa egin dau. Enpresa txiki eta ertaineri zuzendutako ikastarua hillaren 14an eta 21ian emongo dabe KZ Gunian (Portalean), 14.00etatik 16.00etara. Parte hartu nahi dabenak ekintzaile@debegesa.com helbidera idatzitta edo 943820110 (Vanesa Hortas) telefono zenbakira deittuta emon biharko dabe izena.



ANDRES SAN MILLAN (artista)

“Berba egin barik, gorputzarekin komunikatzen du MAN-ek”

Orain dela 30 urte New Yorken bizi den eibartarra "artista" berbaren adiera zabalenak definitzen du, zalantza barik: artearen esparru batetik bestera natural mugitzen doan Andres San Millán-ek urte honen hasieran sortu du bere lanik berriena: Hudson erreka-bazterretik hartutako adarrez osatutako MAN eskultura. Artistak berak azaldu dizkigu bere lanaren nondik norakoak.

- Noiztik bizi zara New York-en? Zergatik joan zinen haraino?

Alwin Nikolaisen eskolan dantza ikastera etorri nintzen eta hemen bizi naiz 1983az geroztik. Bartzelonan irakasle nuen Gilberto Ruiz Lang-ek gonbidatuta, ikastaroa ematera etorri zen Lynn Levine dantzari estatubatuarren pistari jarraituta ailegatu nintzen honaino. Bere irakasgaiak eta teknikak izugarri gustatu zitzaizkidan, baina are gehiago harritu ninduen nire irakasleari zein ikaslerik hasiberrieneri errespetuz betetako berba egiteko bere moduak. Bertute inbidia garriak zituela pentsatu eta bera zegoen tokira joatea erabaki nuen, berarengandik ikasi ahal izateko. Irungo Dori nire lagunaren eskuzabaltasunari esker New Yorkera ailegatu nintzenerako nire irakasle maitea jada ez zegoen Nikolaisen konpainiarekin. Eta horrela, ia konturatu barik "Amerikak egiten" hasi nintzen hiru astez bizilekutat izan nuen logelan, lau hilabeterako dirua besterik ez nuela eta ingelesez tutik jakin barik.

- Zein da han egiten duzun lana?

Artearen diziplina ezberdinak lantzen ditut. Nire lehenengo maitasun artistikoa dantza izan zen, baina Margueriterekin ezkondu eta lehenengo seme-alabak, Ezra eta Magdalene jaiotzean, etxeak margotzen hasi behar izan nuen, dantzak ez zuelako dirurik ematen. Hortik pintura dekoratibora pasatu nintzen: Manhattanen pintore jardun nuen eta nire kabuz estenzil teknikari jarraituta dekoratzen, marbolizatzen, mural txikiak egiten ikasi nuen. Bila joan barik nire arte-gogoak eszenatokiraino eraman nin-

duen berriz ere. Eszenografiak eta orotari-ko objektuak, jantziak, argiztapenak eta osatzen topatu nuen nire burua. Baina Manhattan diru gutxi duen familia gazte baten tizat gogorra da eta hiriarren iparraldera joan ginen. Hemen, Duchesse konterrian eta Scripps familiaren eskuzabaltasunari esker, Franklyn Alexanderrekin pintura eta giza-irudiaren marrazketa ikasten hasi nintzen. Ezra seme nagusiak 6 hilabete zituela, gerora Cocoon Theatre izango zena hasi genuen emazteak eta biok. Umeendako txotxongilo-antzoki apal modura jaio zena gaur egun arte bisual eta antzerkiaren irakaskuntzarako elkarte da. Hemen eszenografia diseinatu eta osatzen dut, dantza klaseak ematen ditut, dantzan egiten dut, margotu eta eskulturak egiten ditut. Hainbat ikastetxe publikotan klaseak ere ematen ditut. Bestalde, kalejirak asko gustatzen zaizkit eta sarritan horrelakoetarako karrozak egiten ditugu. Nire lanetako asko www.figurearscape.co edo www.cocoontheatre.org guzueetan ikus daitezke.

- MAN uda zure lanik berriena. Nolako da?

Makurtutako gaztea da, bere oinetan eta ezker eskuko hatz erakuslean kulunkatzen. Lau bat metro dauzka eta oso-osorik Hudson erreka egurrarekin egin dut, elkar gurutzatzen diren adarrekin. Giza gorputzaren mugimendu, energia eta anatomia fideleki izaten ahalegindu naiz. MAN bere ingurumenari lotutako gizona da eta bere espresioarekin giza-oreka lurrarekiko arretan dantzala dioela dirudi. Inguratzen duenaren kontra borrokan jardun beharrean, MAN-ek entzun egiten du, bera sortu eta elikatzen

duen lurraren zati bat da. Berba egin barik, gorputzarekin komunikatzen duen gizona.

- Zergatik Hudsoneko adarrak?

Espreiorako azkartasun eta askatasuna emango zidaten materialekin jardun nahi nuelako, tamaina handiko lana sortzen ahalbidetzearekin batera. Gainera, oso material ugaria eta merkea da eta gauzak ustekabean eta pobretzat dauzkagun materialak erabiltzea sortzeko ideia gustatzen zait. Originaltasun zaporea dauka!

- Eskultura ipintzeko ekitaldia bera artelan modukoa izan zen, berezia, ezta?

Kalejira eta ezustekoren bat gordetzen duten "happening" direlakoak batu nituen, harridura eragiteko asmoz. Eta lortu nuen. Pentsak zerbait aurreratu zuen arren, inork gutxi espero zuen gertatutakoa, are gutxiago ezer ulertzen ez zuten gidariek: ordura arte ibilgailuak baino ez zeuden tokian bapatean adarrez egindako gizon honekin topo egin zuten! Artearen garraibidea bera arte bihurtzeko ideia bururatu zitzaidan. Artelana erakusketa aretora eramateak lana objektu komertziala bihurtuko lukeela iruditu zitzaidan. Baina garraioa abentura parte-hartzaile bihurtzean, aldiz, arteak komunitatearekiko duen funtzioa bete zuela uste dut.

- Zer asmo daukazu etorkizunera begira?

Asko gustatuko litzaidake Eibarren zerbait sortzea. Artile-ko Isabel arrebarekin eta Lisaker taldeko Javier Zabala lagunarekin batera antzerki edo bestelako jardueraren bat nola antolatu eta finantzatu pentsatzen dihardugu. Semea, hiru alabak, Marguerite eta seiok arte munduan dihardugu, oraindik ere inspirazioa eragiteko zein jasotzeko modu bila.

Gure herriko industriak bere sasoirik betiena ezagutu eban urtietan Eibarren etxe bakoaren azpian tallarren bat eguala esaten eban. Urtiak jua urtiak etorri, hórretako asko hutsik geratzen jua dira eta, gehixenetan, ixa euren kabuz erortzen jua arte iñor gitxi akordau da euren, ez bada izan proiektu barien baten bidian traban eguazelako. Berreibar izenaren atzian erabilli bariko eraikiñ hórren gaiñeko ikerketa proiektua dago. Aurreko asteko eguenian Portalean emondako hitzaldixak jendiari proiektua ezagutzera emoteko lehelengo pausua izan ziran, eta aurrerago beste jardunaldi batzuk eskintzeko asmua dakela aurreratu dabe. Bixen bittartian, proiektuko partaidietako batek esplikau deskuz punto nagusixak.



Berreibar, hildako eraikiñak berpizten

Joseba Salbidea M-etxea Arkitekturaren Ikerketa Elkarteko kidiak azaldutakuari jarraituta, "Berreibar eraikiñ industrial hutsen birmoldaketari buruzko ikerketa proiektua da. Gure lurraldeko

herrixetan patrimonioxo modura zainduta egon biharko leukietaillar eta lantegi asko hutsik, erabilli barik ikustiarekin kezkatuta gagoz. Aktibidade bariko eraikiñ haundi hónek 'gune hillak' sortzen dittue he-

rrixetan eta, beraz, euren inguruan segurtasun falta daken guniak agertzen doiaz. Oiñ arteko urtenbidia eraikiñak eraitsi eta etxebizitzak egittia izan da. Baiña gu eraikin hórrek eraitsi barik, berreskuratzieren

JOSEBA SALBIDE (M-ETXEA):

"Erabilli bariko eraikiñak oso azkar hondatzen dira"

- Zelan topau dozue Eibar erabilli bariko eraikiñ industrialeri begira?

Erabilli bariko eraikiñ eta espazio mordua dagoz, danak batera ikustiak benetan harridura eragitten dau. Baiña, jakiña, danak ez dagoz egoera berian. Izan be, hutsik eta erabilli barik daguazten eraikiñak oso azkar hondatzen dira eta, horregaittik, horrelakorik ez pasatzeko bertan aktibidadearen bat sartzia komenigarria da. Horrekin batera, nun daguazten eta inguruan zer daken be inportantia da: batzuk herri barruan bertan dagoz, beste batzuk, barriz, isolatuago... Horren arabera, bakoxta aproposagua izango da modu batian edo bestian erabiltzeko. Hori izan zan, hain zuzen be arkitektura ikasliekin landu genduan gauzetako bat.

- Zeintzuk dira, arkitekturari begira, aukera gehixen eskintzen dabenak?

Hainbat klastetako eraikiñak diranez, bakoxtak bere aukerak eskintzen dittu. Gure premiñetara modurik egokixenian moldatzen dana edozeiñ izan leike, eta oin lantzen dihardugun prozesuan hori zihezten eta definitzen jua biharko gara hain zuzen be. Guri, jakiña, hainbat eraikin birmoldatzia gustauko litxakigu, batetik hasi eta sistemaa beste eraikin batzuetara hedatzen juatia, beti be euren arteko harremana bultzatuta eta alkarlana indartuta. Herri barruko eraikiñekin hastia be inportantia da, holan, moduren batian esateko, daguazten "hutsuniak betetzen" juateko eta, horrekin batera, eraikiña danen begibistan egoteko eta jendiak sistemak funzionatzen dabela ikusteko.

- Zeintzuk dira trabarik haundixenak holako eraikiñak berrerabiltzeko orduan?



Hainbat traba dagoz. Haundixena beti berrerabiltziak dakarren kostu ekonomikua izaten da. Eta, horrekin lotuta, eraikiñaren egoera fisikak berak trabak eragiñ ahal dittu: oso kaltetuta badago, berrerabilpena karuagua izango da. Beste trabak alde burokratitotik datoz, arauak eta normak traba izan leikez. Edozelan be, hórrek gaintitzeko aukerak badagoz, batez be administraziñuak proiektua babesten badau. Traba hónek eta ikusten ez diran beste batzuk askoz errezagó gaintitu leikez proiektuan inplikauta daguazten agentien borondadia haundixa bada.

aldekuak gara, historixa eta arkitekturari begira ondaria diralako eta erabillera barraxak jasotzeko gaittasun haundixa badakela pentsatzen dogulako".

Ez da hori, baiña, euren kezka bakarra: "Gaur egunian dakagun krisixak eragin daben langabezixa tasak be kezkatzen gaittu. Iñoiz euki dogun belaunaldi prestatuena dauka, baiña aurretik dakan etorkizuna benetan illuna da. Krisixari aurre egittekko modu onena gaztiak daken potentziala aprobetxatzia da, jarrera positibua eta propositibua eukitziarekin batera. Moduren batian esateko, krisixak beste bide batzuk jorratzera bultzatu

gaittu, adibidez ekonomixa bariak martxan ipintzera. Proiektuaren helburua arazo bixeri batera, aldi berian erantzuna emotia da: herritarrak (gaztiak batez be) sustatutako ekimenen bittartez patrimonixo industriala berreskuratzia. Ikerketia abian ipintzeko Eibar toki aproposa zala begittandu jakun, hamen arazo bixak begibistakuak diralako, eta holan ekin gentsan biharrari".

Talde-lanarekin aberasten

Proiektuan biharrian talde batek baiño gehixagok dihardu: "Proiektua martxan Metxea taldekuak, hau da, arkitektura eskolan sortutako iker-



Udalaren eta hainbat herritarren laguntasuna izaten dihardue ikerketa proiektua lantzeko orduan.

keta taldekuak ipiñi genduan, baiña ointxe Eibarko Udalaren eta hainbat herritarren lagun-

tasuna dauka, baita Euskal Herriko Unibertsidadiarena. Proiektuak parte-hartzaillia izan nahi dau, holan senduagua izateko. Horregaittik agente diferentia partehartzia lortu nahi dogu: eraikiñen jabiak, herritar ekintzailliak, instituziñuak... honetan oso lagungarria izaten dihardu MonoDestudio soziologo-taldia- ren laguntasuna".

Proiektuari ekin zetsela urtebete pasatxo bada, "baiña abendutik aurrera hasi da agerikua izaten. Oiñ arte proiektuaren diseiñua gartzten eta harremanak sustatzen ibilli gara gehixenbat. Abenduan egin genduan lehelengo ekimen publikua, hitzaldi eta taillarrak antolatuta". Abenduko taillarretatik etara dittuen ondorixuetako bat, hain zuzen be, zabalkundiak dakan garrantzixa da eta horren harira hillaren 28an izango da hurrengo hitzaldisorta, Portalean. Bixen bittartian, gaixan interesa dakenak berreibar.blogspot.com helbidera jo leikie.



Abenduan lehelengo taillarrak antolatu zittuen arkitekturako ikasliekin.

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelarrera, gaztelerratik euskarara, eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

f
Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27 Bulegoa: Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra
© 943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi
El primer grupo funerario de Euskadi

- Eibar • Donostia • Bilbao • Barakaldo • Leioa • Getxo • Sestao • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sodupe • Espinosa de los Monteros •

1901 1901
BURBUJAS VERDES
Certificadas
Fº Teatros y Crematorios

Eguaztenean EJE (Enpresa Gazte Ekintzailea) azoka egin zen Untzagan. Bertan EAEko Lanbide Heziketako 36 ikastetxetarik etorritako 600 gaztetik gora izan zen, ikasleek sortutako 115 kooperatiben eskaintzarekin. Tartean Armeria Eskolako ikasleen eskutik sortutako bi egon ziren: Tudesign eta Zenspirit (jaboi naturalak). Produktuen pertsonalizazioarako enpresako sortzaileetako bat den Leire Larrazabalek eman digu ikasleak enpresa mundu errealekin harreman zuzenean ipintzen dituen ekimenaren berri.

- Zer dela eta sortu duzue Tudesign?

Armeria Eskolan Telekomunikazio eta Informatika Sistemak ikasten dihardut eta irakasgaietako bat enpresa txikien administrazioaren ingurukoa da. Praktika modura kooperatiba bat sortu behar genuen eta beste hiru taldekiderekin batera objektuak pertsonalizatzeko enpresa sortu dugu.

- Klaserako lana izan arren, baina, enpresa erreala da, ezta?

Bai, enpresa bat sortzeko eman beharreko pauso guztiak eman ditugu: kooperatibarako irudia eta logoa sortu, faktura, albaran eta beste guztiak prestatu, estatutuak idatzi...

- Prozesuan aparteko zailtasunik topatu duzue?

Hasieran horrelakoak eskaintzen dituen ikatz-era jo genuen. Euren Bartzelonan duten probedorearekin harremanetan ipini gintuzten, baina euren beharrerako prozesua guk nahi genuen eskaintzarako oso egokia ez zela ikusi genuen eta, horregatik, gure asmoarentzat aproposagoa den Ermuko enpresa batekin dihardugu. Produktu "zuriaren" prezioari ez diote larregi gehitzen pertso-

nalizazioarengatik. Gero taldekideetako bakoitzak dirua ipini genuen bezeroei eskaintzeko produktuak erosteko. Bestalde, salmentan lortzen dugunaren %10 gure aurreko ikastetxean, Durangoko Maristetan dagoen GKE-ari ematea erabaki genuen.

- Zelakoak pertsonalizatzeko aukera ematen duzue?

Kamisetak, hautsontziak, txiskeroak, motxilak, mugikorrentako zorroak, tazak... eskaintza zabala dago. Gure blogean (<http://tudesign.bligo.es/>) sartu eta ikus daiteke. Gure berezitasuna, baina, bezeroa enpresa proiektuan sartzeko hasieratik izan dugun asmoa da: bakoitzak bere izaerarekin bat datorren bere irudia zerbaitetan isladatzeko aukera badagoela ikustarazi nahi diogu jendeari.

- Esperientzia hau eta gero, etorkizunean zeure burua enpresa bat sortzen ikusten duzu?

Esperientziak asko animatzen du, ilusioa eragiten dizu, baina gauzak dauden moduan egonda horrelakoetan sartzeari arriskutsua ikusten dut, orain behintzat beldurra ematen dit.



Leire Larrazabal
(TUDESIGN)

"Norberaren irudia nonbaiten islatzeko aukera dago"

BARRIO autobusak eta mikrobusak

www.autocaresbarrio.es
info@autocaresbarrio.es

MOBILA: 659 87 89 89
943 17 15 01 / Aldapa, 6 (ERMUA)

Ketesa 2010 bulego eta kolektibitateko instalazio osoak eta materiala

altzariak, aulkiak, manparak, liburutegiak...

bulego materiala enpresetan banatzen dugu

Estaziño kalea, 12
20600 Eibar
tlf. 943121973 / 943121974
fax. 943127068
email. info@ke2010.com



Asier Serranoren

kolaborazioa

Protokoloa

Azken uholdearekin desagertu ziren haur beltzek ez zuten izan denborarik kotoi birjinaz egindako hartza txikiak bataiatzeko. Denborarik ez zuten izan denbora hitza bera deszifratzeko. Uralitazko teulatuekin eta aitaren kotxearen ate herdoilduekin batera eraman zituen uraren ejertzitoak. Aitonek aspaldiko urtaroak ekarri zituzten memoriara, tradiziozko matematika ilogikoa erreparasatuz gertatutakoari esplikazioa topatu nahian. Amonek ez zuten negarrik egin, isuri beharreko dolu malkoek ez zezaten ibaiaren maila jada gehiegizkoa are gehiago goratu. Amek azkar erantzi eta haizatu zituzten beraien soinekoak eliza okertuaren kanpandorrean, ibai handiak eramandako haur haiek izan zezaten banderarik urrunetik bistaratzeko. Eta aitek kotxeko giltza kamutsekin urratu zituzten hatz markak. Ez zitekeen beste ezer egin, huraxe zen eraman beharreko protokoloa. Azken uholdearekin desagertu ziren haur beltzak, zerura begiratzen ikasi gabe, betiereko zurien itsasoan.

musika

Betagarri
"Zorion Argiak"

Gasteizko banda ezagunak "Zorion Argiak" izeneko lan bi-koitza plazaratu du. Taldeak hogeitauko ibilbidea beteko du 2013an eta disko hau data berezi hori ospatzera dator. Ez da gutxiagorako, tarte luze honetan milatik gorako kontzertu eman baitute. 23 abestik osatzen dute lana eta, tartean, Tonino Carotone, El Drogas eta Pirritx eta Porrotxen kolaborazioak. "Milaka izar zeruan" abestia da laneko ikurra.



Itziarren Semeak
"Dale Candela"

Hirugarren lana kalean du Mungiako taldeak. Diskoaren izenburua "Hego Amerikako iraultze keinua" dela adierazi dute eta emakumeak dituela protagonisten artean. 15 kantaz osatzen den laneko doinuak askotarikoak dira, hainbat estiloren "koktel tropikala" osatuz: funk, punk rock, reggae, ska, hip-hop, saltsa, hardcore, technoa etabar, keinuak eginez Kortatu eta The Clash taldeei.



Mikel Antza
"Atzerri"

Atzerria izan daite kartzela, ihesa, erbestea, klandestinitatea. Egileak urte luzeetan bizi izan dituen atzerriak ditu hizpide eleberririk horretan, idazlearen sentiberatasun eta gogoeta hegalaria militantziaren uzta-ri zurrunari josteko ahaleginaren gihar-nekeak beti lagun. 333 orritan kabitzen diren le-rrortarte guztiak mintzo da, azukrerik gabe kikanan.

Karlos Zurutuza
"Tripoli Kabul"

Kronika liburua da, egien liburua. Ekialde Hurbilean igarotako urteetan freelance kazetariak atera eta hitza eman die liburuko protagonistei. Gertu-gertutik ezagutuko ditugu euren mutilatutako ametsak, beldurrik ez dutenen begiradak edo beldurrekin bizitzen ikasi dutenenak. Lan honetako errealitate oso baten zenbait zertzeladek hausnarketarako abagune aparta eskaintzen digute.



literatura

LIBURU SALDUENAK

- 1.- "Ez naiz ni" Karmele Jaio
- 2.- "Urtebetetze festa" Castillo Suarez
- 3.- "Sinplistik" Hedoi Etxarte
- 4.- "Eserleku hutsa" J.K. Rowling
- 5.- "19 kamera" Jon Arretxe
- 6.- "Mussche" Kirmen Uribe
- 7.- "Azken garaipena" I. Zandua eta J. Ribas
- 8.- "Urak dakarrena" Toti Mtez. de Lezea
- 9.- "Paper-festa" Anjel Lertxundi
- 10.- "Ez zuten erantzun" Oier Santos

GREMIOEN



ANTENAK

BALATZ c.b.
Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

Tfnoa: 943-530356
Mobila 688-674242
Barrena, 21 - 3. A
ALBERTO ELEKTRIZITATEA
DASILVAALBERTO@HOTMAIL.ES
INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA

GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar
Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua
Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171 Barrena, 21 - 1. F

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ELECTRICIDAD
CUADRA EC
Barrena 26 / 20.600 Eibar / T943 121642 / F.943 204307 / ec@electricidadcuadra.com
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOA
INDUSTRIA MANTENUA
PROIEKTUAK
ERREFORMAK

TREJO
GARBIKETAK S.L.
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze
Garbiketa eta mantenimendua

AROTZAK

IÑAKI
Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak
Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

GURIA
ELEKTRIZITATEA
Muntaiak eta proiektu elektrikoak
Matsaria 2 7. pabilioa
Tel. 943 70 08 95
Fax. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

HODI-LIBRATZEAK

ATAX
— Hodi-libratzeak
— Saneamenduen garbitzea presio handiko makinariarekin
— Ur ateratzea ufaletan ondoren
www.desataxcos.com
LARRIALDIETARAKO (24 ordutan): 673 304 222

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiaik
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA,
KONPONKETAK
ETA INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK
ibarra 677 51 24 62
943 20 06 97

ulmar
S.L.
metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko arotzergia baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



CAMILO ALVAREZ OROKORREAN

- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
620 060 104 (Ernesto)
600 465 789 (Fran)



irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

eraikuntzak erreformak igeltseritza

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA



Gasa
Kalefakzioa
Klimatizazioa
Eguzki Energia

Fontanería Jardines

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANGROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTALARLOKO SOLUZIOAK

c.acha@euskaltel.net eta faxa:
ERAKUSKETA: Arikixaneko Zu- 943 20 39 03

PINTURAK



DECORACIONES
AIXA
José Luis Irionda

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etixerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea



PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89



MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396



VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com



Somos Eibar Eskubaloia 2. postuan sailkapenean

Zaragozak Egian galdutako partiduari esker, Somos Eibar Eskubaloia bigarren postura igo da estatuko I. mailako ligari berriro ekin dioten honetan. Eibartarrak Kantabriako Corrales baino gehiago izan ziren bigarren itzuliari hasiera eman zion Ipuruan jokaturako neurketan (32-22) eta, modu horretan, igotzeko fasea jokatzeko aukera du aurrean (multzoko bi lehenak sailkatuko dira). Moyua atezainaren lan ederrarekin batera, Ibaibarriaga (9 gol), Ruben Cruz (7) eta Lander Casado jokalaririk berria nabarmendu ziren partiduan.



Beste eski irteera bat hilaren amaieran

Klub Deportiboko eski batzordeak denboraldiko hirugarren irteera antolatu du LHko 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat, eta baita 18 urtetik gorakoentzat ere. Txango hori Somportera (iraupen eskia) eta Astunera (alpinoa) egingo da, aurrekoetan moduan os-

tatua Villa Anayet hotelean (helduak) eta Triton aterpetxean (neska-mutilak) hartzeko. Prezioa 62 eurokoa da helduen kasuan eta 75ekoa umeenean -azken hauetan, forfai eta alokairua barne-. Izena eguztenetan eta eguztenetan eman daiteke Klub Deportiboko bulegoetan.

Eibarrek Barakaldo hartuko du bihar 17.00etan

Asko esateko du bihar arratsaldean Ipuruan jokatu den partidua, hor Eibarrek Alavesen atzetik multzoko gol gutxien jaso duen taldea hartuko baitu. Barakaldok gorantza egin du azken aldian eta bosgarren postuan dago, promoziorako azken postuan dagoenarekiko bost puntura. Eibarrentzat, bestalde, sari txikia izan zen Izarraren zelaian lortutako berdinketa eta Alavesek sei puntu ateratzen dio sailkapenean.



Eibarrek 0-1 irabazi zuen Barakaldon lehenengo itzulian.

Herriko waterpolistak partidurik galdu gabe

Orbea kiroldegian zapatuan jokaturako norgehiagokan, Urvat Urkotronik-eko senior taldeak 15-9 irabazi zion Maristas Bilbatori; garaipen horrekin, eibartarrak zazpi garaipen, berdinketa bi eta porrot bakarra daramatzate Euskal Herriko ligan. Jokin Romanellik min hartu zuen eta

pare bat hilabete egin beharko ditu jokatu gabe. Lan bikaina egin zuten, bestalde, Basterrika, Leturiaga eta Sologaistua 92ko kintoek. Kadeteen taldeak 10na berdindu zuen Larrainarekin eta Joseba Urkiak maila onean jardun zuen Euskadiko selekzioarekin, gol bat sartuz.



Alkidebak aurrekoen arrastoa galdu du foball zaletuan

Sporting-ekin 3-1 galdu eta gero, Alkidebari ihes egin dio goian dauden taldeekin osatutako laukoteak. Horien artean, Garajes Garcia 10-0 egurtu zuen Iruki, Durangok 1-0 irabazi zion Bar Caseriori eta Koskor eta Txokoren arteko lehia banako berdinketarekin amaitu zen. Azken emaitza horretaz baliatu da Durango lidergoa eskuratzeko: puntu bakarrera ditu Garajes Garcia.com eta Txoko eta bira dago Koskor.

Xakeko Deporreko talde biak lidergoan

Preferenten diharduen taldeak 1'5-2'5 irabazi zion Baionari Donostian jokaturako neurketan eta, emaitza horrekin, Urnietarekin berdinduta dago sailkapenaren goi-goian. 3. mailan jokatzen duen bigarren taldea, bestalde, 4-0 gailendu zitzaion Urretxuko Goierri eta nagusitasun osoz agintzen du multzoan, bigarrenari bost puntu eta erdi kenduz. Asteburu honetan Deporren jokaturako dute talde biak: maila gorenekoak Arrasate-Arlutz B izango du aurrean eta 3. mailakoak Getariako KETA.



berriak

PILOTA

Asteburu emankorra izan zuten aurrekoa Klub Deportiboko pilotariak. Horrela, Udaberri torneoan, Narbaiza eta Ruizek 22-10 eta Velasco eta Larraurik 22-17 irabazi zuten euren partiduak, biak ere jubenil mailan. Euskal Ligan, bestalde, Unamunzaga-Bengoetxea bikotea erraz nagusitu zen (22-7) Usurbilgo bikotearen aurrean; domekan Villaban jokaturako dute.

KIROLA FAMILIAN

Eibarko kiroldegian egitasmo horretan parte hartzeko arautegiak dioenez, ume guztiak gurasoek lagunduta egongo dira uneoro, materiala zaindu beharko dute eta debekatuta dago instalazioan jatea eta kaleko oinetakoekin sartzea.



Muguruzak brontzekoa Gipuzkoako judo txapelketan

Lezoko kiroldegian jokaturako kadete mailako Gipuzkoako judo txapelketan izan ziren Nekane Muguruza eta Julen Ramon eta, eurekin batera, Garikoitz Del Barrio eta Manu Agirre epaileak. Muguruzak brontzeko domina eskuratu zuen bitartean, Ramonek 7. postuarekin konformatu behar izan zuen bere mailan. Asteburuan Iker Martinez Madrileraino joango da infantil mailako jiu-jitsuko estatuko txapelketan parte hartzeko: iaz brontzeko domina lortu zuen.

Hierros Anetxeko neskek beranduegi erreakzionatu zuten

Bigarren zati bikaina jokatu arren, 32-19 galdu zuten eibartarrek domekan Gaztediren zelaian. Neurketa borrokatua izan bazen ere, hasieran jokoan sartzea kostatu zitzaizen Eibar Rugby taldekoei eta bigarren zatiko Amaier Mayoren entsegu biak eta Paula Riosen bestea ez ziren nahikoa izan partiduari buelta emateko. Liga amaitzeko falta zaien partidu bakarra hilaren 17an jokaturako dute Unben, Durango hartuz egun horretan eta lehen itzulian lortutako garaipena errepikatzeko gogoz.



Ruibalek irabazi eta Katu-Kalek galdu saskibaloian

Ruibal Alquiler de Vehiculos-ek denboraldiko 10. garaipena lortu zuen Cafes Aitonaren aurrean (75-50) eta, emaitza horrekin, sailkapeneko 4. postuari eusten dio, beste birekin berdinduta. Oiarso eta Aluminios Francisco Alberdik eibartarrek baino bi garaipen gehiago dituzte eta Orioko Autobuses Alustizak bat gehiago. Maila bat beherago dagoen Katu-Kalek 45-36 galdu zuen Oiartzungo Saskilagunak-ekin eta sailkapeneko erdi aldean jarraitzen du, sei garaipen eta zazpi porrotekin.



Mendi irteera eta sagardotegia

Eibarko Klub Deportiboko mendi taldeak, urtero lez, sagardotegian amaituko den mendi irteera antolatu du otsailaren 23rako. Malloetara egingo dute txango hori, gero Ikaztegiatiko Begiristain sagardotegian amaiera emateko. Irteeraren prezioa 40 eurokoa da eta, izena emateko, interesatuek Deporretik pasatu zaitezketek martitzen eta eguenetan, 19.30etatik 20.30etara.

ION ELORZA (Seiurteko abeslaria)



"Atlantida" aurrekoak baino rock-eroagoa da"

Seiurte taldeak "Atlantida" disko berria kaleratu du orain dela bizpahiru hilabete. Gure herriko Elortza anaiek -lokin (abeslaria eta gitarrista), Iñaki (gitarra) eta Ekain (bateria)- eta euren lehengusu Julen Oarbeaskoak osatutako taldeak bira berria hasi du eta martxoan Elgetan ikusteko aukera izango dugu. Hona hemen Seiurteko abeslariarekin izandako elkarrizketaren zertzelada batzuk.

- Zuzeneko ere kontuan hartuz, honakoa da zuen seigarren diskoa. Zer aurkituko dute beretik zuen jarraitzaileek?

Batez ere, sonoritatean egon daiteke alderik nabarmenena. Aurreko diskoetan soinu gordinagoa bilatzen genuen moduan, oraingoan soinu handiagoa, ekoiztuagoa lortu dugulakoan gaude, efektuez eta baliatuz. Ohiko ahapaldi-leloa moldearekin apurtu eta beste borroka bati heldu diogu.

- 11 kanta sartu dituzue. Asko geratu zaizkizue kanpoan?

Aurrekoetan baino kantu gehiagorekin jardun izan dugu lanean oraingoan. Batzuk proiektuan geratu dira, hortik pasatu barik; baina horko ideiak besteetan erabiliz. Azkenean 14 bat izan dira oinarri.

- Adituek dioten moduan, aurrekoak baino rockeroagoa egin duzue? Erreferentzia britainiar gehiago aurkitu daitezke orain?

Ados gaude oraingoan rock-eroagoa egin dugula diotenekin. Beti pop-rock inguruan murgildu gara, eta egia da aurrekoetan pop aldera lerrokatu garen moduan oraingoan rock-era jo dugula. Bestalde, gure erreferentziak beti izan dira britainiarrak eta ez amerikarrak.

- Abestietako batek "Tahrir" du izenburu. Bestelako kezak atera nahi izan dituzue zuen testuetan?

Gure zilborrari begira geratu beharrean, egokitza jo dugu Afrika iparraldeko iraultzari erreparatzea. Hori bai, kontu handiz, ez baikara inor han benetan gertatutakoa aztertzeke. Herriaren indarra islatu nahi izan dugu, horri aurre egiteko armadarik ez baitago.

- "Atlantida" izen horrek zer adierazi nahi du? Abesti perfektuaren bila jardun duzue?

Beti ibiltzen gara horren bila. Egia esateko, kanpoan geratu zen abesti baten izenburua da. Gure Atlantida disko hau izan da, beste egoera batean beste bat izango litzatekeen moduan. Bilakaera bat islatu nahi du.

- Baga-Bigarekin atera duzue diskoa? Autoprodukzioa baztertu?

Hogei urterekin genituen denbora eta indarra ez ditugu jada eta, sasoi bateko erromantizismoak esperientzia baikorra eskaini bazituen ere, orain diskete baten alde jo dugu hain gustokoak ez ditugun "lan administratiboak" deitu ditzazkegunak burutzeko.

- Non izango dituzue urengo kontzertuak?

Tolosan, Zornotzan eta Elgetan, azken hori martxoaren 9an edo.



Baserritar gazteak Baltzola anaiek lagunduta irten ziren.

Santaeskean jardun zuten abesbatzek

Astelehena Santa Ageda bezpera izan zen eta, ohiturari jarraituta, santaeskean irten ziren herriko abesbatzak, tartean Sostoa eta Kaleetan Kantuz-ekoak. Baserritar gazteak, berriz, asteburuan, zapatuan irten ziren Kiñarra eta Arrate auzoetako baserrietara, Baltzola anaiek lagunduta.



Kaleetan Kantuz-ekoek ere ohiturari heldu zioten. SILBIA HERNANDEZ



Deporreko argazkilariekin ikastaroa

Klub Deportiboko Argazki Taldekoek ikastaroa antolatu dute. Martxoaren 4an hasiko da eta klaseak astelehen eta eguaztenetan emango dituzte J.A. Palacios eta J.L. Irigoien argazkilariek, 19.30etatik 21.30etara Portalean. Aste Santuan (martxoaren 24tik apirilaren 1era arte) etenaldia egingo dute, klasera apirilaren 3an bueltatzeko. Ikastaroa apirilaren 22an amaituko da eta praktikatzeko irteerak, berriz, martxoaren 23an eta apirilaren 27an izango dira. Ikastaroaren prezioa 50 eurokoa da Deporreko bazkideentzat eta 60 eurokoa besteentzat. Aurrematrikula egiteko epea zabalik dago eta interesa dutenek hilaren 28ra arteko tartea izango dute hori betetzeko, argazkilaritza@gmail.com helbidera idatzita.

Hondakinei buruzko hitzaldia emango du Iñaki Petxarromanek

Udako Euskal Unibertsitateak, hondakinen kudeaketa eta tratamenduari buruzko graduondokoaren barruan hitzaldia antolatu du gaurko: Iñaki Petxarromanek orain dela gutxi argitaratu duen "Su haietatik ke hauek" liburua aurkeztu eta hitzaldia emango du Markeskuan, 18.00etan. Gaur egun Gipuzkoan hondakinen inguruan dagoen gatazkari jarraipen zuzena egin dio Iñaki Petxarroman kazetariak eta horren berri ematen du Txalapartak kaleratu duen li-



buruan. Hitzaldia irekia da, doanekoa eta ez da aurrez izena eman behar.

Antzerki Jardunaldiak ate joka



Datorren astean, eguaztenean, 11.00etan aurkeztuko dituzte udaletxeko pleno aretoan XXXVI. Antzerki Jardunaldiak. Datorren asteko barixakuan, hilaren 15ean arratsaldeko 17.00etatik aurrera Untzaga eta inguruan egingo den XI. Giza-irudien erakustaldiarekin ekingo diote egitarauari. Irekiera ofiziala, baina, Juan Diego Botto aktoreak hilaren 19an Coliseoan emango duen hitzaldiarekin batera ailegatuko da. Otsailean bertan eskainiko dituzten antzezlanen artean, berriz, "Gaudeamus el licenciado Vidriera" (La Chana Teatro), "Munduari itzulia" (Gorakada), "El médico de su honra" (Teatro Corsario) eta "Gauerdian" (Tanttaka) daude. Aldez aurreko salmenta hilaren 16an (10.00etatik 16.00etara), 17an eta 18an (10.00etatik 14.00etara) egingo da Coliseoan.

Korrikak martxoaren 20an zeharkatuko du Eibar

Aurtengo Korrika 18 prest dago. "Eman eskara elkarri" goiburuari jarraituta, martxoaren 14an Andoaindik irten eta martxoaren 24an Baionan amaituko da. Eibarrera martxoaren 20an (eguzte-na) 19.00ak aldera ailegatuko da, Ermutik iragan ondoren. Egun horren prestaketa eta sortuko diren beharrei aurre egiteko Korrika batzordea eratuko da Eibarren. AEK euskaltegitik esandakoari jarraituta, "batzorde horretan parte hartzeko gogoia eta euskarari laguntzeko borondatea, besterik ez dugu behar. Beraz, interesa dutenak otsailaren 11n, 19.00etan AEK euskaltegian egingo den lehenengo bilera etortzera gonbidatu nahi ditugu".



laburrak

SAGARDOTEGI PLANA

Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo sagardotegi banak, Aizpurua autobus enpresak eta Manuel Juanito tabernak sagardotegira joateko eskaintzari bihar ekingo diote. Apirilaren hasiera arte martxan izango den ekimenari esker asteburuoro egongo da sagardotegira joateko aukera, eguerdian edo gauean. Planaren inguruko informazioa jasotzeko zuzenean Urkizuko Juanito tabernara jo daiteke.

ARATOSTEAK KARRIKAN

Gaurko musika saio berezia prestatu dute Karrika tabernan, DJ Elvis Cainoren eskutik: blues eta rock gaua izango da 50., 60. eta 70. hamarkadetako musika onenarekin.

AUZOKOAK

Santa Ageda bezperan kantuan jardun zuen Sostoa abesbatzari afaria eman zioten astelehenean Auzokoak elkartekoek, Udalaren laguntzari esker. Bestalde, Gureak-ekoen bazkarian lagundu zientenei eskerrak emateko kartelak banatzen dihardute egunotan. 40 laguntzaile izan ziren guztira, horietako 12 berriak.



Latinamerikako doinu arrakastatsuak

Aurreko barixakuan Coliseoa bete egin zen Musika Latindarren II. Jaialdian. Ana Caballero gitarra irakasleak zuzendutako kontzertuan Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleek beste hainbat musikarirekin batera jardun zuten: besteak beste Iosu Zulaika, Miren Basterretxea, Ainhoa Larrauri, Mikel Urkola, Nathali, Sebastián, Miren Trueba, Marta Zubiaurre, Andoni Mutilba, Jesus Bastida, Musika Eskolako Mariatxia, Beatriz García eta Josetxo Gutierrez Berraondo taula gainean ikusteko aukera izan zuten jaialdira joandakoek.

Aratosteek beteko dute asteburua

Aratosteak berez atzo hasi ziren, baina azken urteotan legez Kezka dantza taldekoen koko-dantzek giroa berotzen hasi ziren aurreko zapatuan: euria eta tarteka txingorra lagun zutela, egun osoan baserritik baserrira kalejiran ibili ziren koko-dantzari eta kokomarruak. Iluntzean, berriz, herri barruan eskaini zituzten dantzak, Elgoibarko Mautitza txarangakoek lagunduta. Bihar berriz ere eskainiko dituzte koko-dantzak, baina Elgoibarren, Haritz dantzari taldearen 40. urtemugaren harira.

ATZOKOAN, Eguen Zuri egunean, urteroko moduan ikasleak izan ziren jaun eta jabe. Eguraldi eskasaren eraginez batzuk eskolan bertan egindako jaialdiek ohiko kalejirei tartea lapurtu zieten, baina Untzagako karparen babespean arazo barik egin ziren Liskerrek girotutako dantzaldia eta Astixaren tailerrak. **ETA GAUR**, Barixaku Erregularrean, kaldereroen kalejirak ekingo dio egitarauari: Kezka Dantza Taldea, ...eta kitto! Euskara Elkarte, Txolar-te Lagun Taldea, Ustekabe fanfarrea, Juan



Aurreko zapatuan baserritik baserrira ibili ziren koko-dantzak, euriari eta txingorrari aurre eginez. LEIRE ITURBE

Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilariak, Untzagako jubilatuen abesbatza, Kaleetan Kantuz eta Jainagaren trikitixa eskola Urkizuko parkean batu eta 20.00etan hasiko dute Untzagarainoko kalejira, kantu eta dantzekin Aratosteak kolorez jantzita. Aurtengo pregoilaria Ander Romarate igerilaria izango da eta 21.00etan irakurriko du pregoia Untzagan. Gauerako, 23.00etatik aurrera, herriko hainbat DJ-ren eskutik saioa antolatu dute.

ARATOSTE ZAPATUAN 12.00etan hasiko da animazioa karpan, San Kristobalگو Jai Batzordearekin. 13.30etan Aratosteetako taberna eta kartel lehiaketan irabazleei saria banatuko diete. Arratsaldeko 17.00etan umeentzat koko-jantzi lehiaketa



egingo dute Galiziako Etxean. 18.00etatik 21.00etara Ustekabe fanfarreak kalejira egingo du. Eta Untzagan 18.30etatik 20.00etara umeendako berbena eta 23.00etatik 03.00etara dantzaldia eskainiko du Kresala taldeak.

ARATOSTE DOMEKARI Usartza Txistulari Bandak ekingo dio, 11.00etan hasiko den kalejirarekin. Gero, 17.00etan, ...eta kitto! Euskara Elkarreak antolatuta karpan play-back lehiaketa egingo da LH-ko 5-6 mailetako ikasleekin eta jarraian umeendako diskoteka hasiko da DJ Arnorekin.

Eta asteburu bete-betearen ondoren, Aratosteak **MARTITZENEAN AGURTUKO** ditugu: 17.00etatik 18.30etara umeendako jolasak egingo dira Untzagan Astixaren eskutik. Trikitilariak lagundutako sardinaren entieru txikia, berriz, 18.30etan egingo da eta orduan hasiko da umeendako diskoteka, DJ Arnorekin.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, LIBE Urra Bereziartua, bixar bost urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, UNAI, haraiñegun zortzi urte egin zenduazena eta. Asko maitte zaituen etxekuen partez.



Zorionak, MARA, domekan bost urte betekozuzelako eta. Etxekuen partez.



Zorionak, ANARTZ, martitzenian zortzi urte betekozuzelako eta. Muxu bat etxekuen partez.




Zorionak, JULEN, gure etxeko erregiari, eguaztenian hiru urte egin zenduazelako. Famelixaren partez.



Zorionak, ARITZ, hillaen 6xan poztasunez beteta urtetxua egin zenduan eta. Amatxo, aita eta Xabierren partez.



Zorionak, GARA, domekan urtiak egingo dozuz eta. Danon partez.



Zorionak, UNAITXO!, bi urte egin dozuz eta, txapeldun. Patxo erraldoi bat, muaaa, etxekuen partez.



Kaixo, IZAR, hillaen 14an gure artera etorri zian eta Zaragozan. Ongi etorri zure arreba Haizea eta famelixa guztien partez.



Zorionak, LARRAITZ, haraiñegun zazpi urte betekozuzelako eta etxeko neska haundixak. Famelixa guztien partez.



Zorionak, NIKOLA eta SUA! Gaur zazpi urte! Ondo pasau eta disfrutau. Laztan haundi bana, famelixakuen partez.

hildakoak

- Julia Tejada San Juan. 82 urte. 2013-II-2.
- Pilar Garcia Fernandez. 72 urte. 2013-II-2.
- Pedro Carballo González. 93 urte. 2013-II-3.
- Concepción Altamira Rodríguez. 82 urte. 2013-II-4.
- Carmen Telleria Unanue. 87 urte. 2013-II-4.
- Iñaki Arregi Juaristi. 78 urte. 2013-II-5.

jaiotakoak

- Elene Prieto Oregi. 2013-I-29.
- Ane Plaza Ubera. 2013-II-1.
- Urtzi Aranburu Gomez. 2013-II-2.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

8an: 22.30

9an: 17.00, 19.45, 22.30

10ean: 17.00, 20.00

11n: 20.30

"El cuerpo"

Zuzendaria: Oriol P. Rosello



(2 ARETOAN)

8an: 22.30

9an: 17.00, 19.45, 22.30

10ean: 17.00, 20.00

11n: 20.30

"El vuelo (Flight)"

Zuzendaria: Robert Zemeckis



(ANTZOKIAN)

8an: 22.30

9an: 19.45, 22.30

10ean: 20.00

11n: 20.30

"Mamá"

Zuzendaria: Andy Muschietti




(ANTZOKIAN)

9an: 17.00

10ean: 17.00

"Kerity, la casa de los sueños"

Zuzendaria: Angel Izquierdo



BARIXAKUA 8

LEHIAKETA

17.30. Koko-jantzi lehiaketa umeentzat (3-12 urtekoentzat). Izen-ematea liburudendan. El Corte Inglés-ean.

HITZALDIA

18.00. "Su haietatik ke hauek" Iñaki Petxarromanen liburuaren aurkezpena eta hitzaldia. UEUn (Markeskua jauregian).

ARATOSTEAK

20.00. Kaldereroen kalejira, Urkizutik Untzagaraino.
20.30. Kaldereroen abestiak eta dantzak. Untzagan.
21.00. Aratosteetako pregoia. Untzagan.
23.00. Herriko DJ-en emanaldia. Untzagan.

ZAPATUA 9

LEHIAKETA

12.00. Koko-jantzi lehiaketa umeentzat (12 urtera arte). Eroski Ipuruan.

ARATOSTEAK

12.00. Animazioa Aratosteetako karpan, San Kristobaleko Jai Batzordearekin girotuta.
13.30. Aratosteetako taberna eta kartel lehiaketan sari-banaketa.

ARATOSTEAK

17.00. Umeendako koko-jantzi lehiaketa. As Burgas Galiziako Etxean.
18.00-21.00. Kalejira, Ustekabe fanfarrearekin.
18.30-20.00. Umeendako berbena, Untzagako karpan, Kresala taldearen eskutik.
23.00-03.00. Dantzaldia, Kresala taldearen eskutik.

INDIANOKUA

17.00. Makilajea eta afaria. Indianokua gaztelekuan.

DOMEKA 10

ARATOSTEAK

11.00. Usartza Txistulari Bandaren Aratosteetako kalejira.
17.00. Umeendako play-back lehiaketa LH-ko 5-6 mailetakoko ikasleentzat.
18.30. Umeendako diskoteka DJ Arnorekin. Untzagako karpan.

INDIANOKUA

18.00. Futbolin lehiaketa. Indianokua gaztelekuan.

ASTELEHENA 11

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Tokian.

KORRIKA

19.00. Korrika 18 prestatzeko batzordea osatzeko bilera. AEK euskaltegian (Sostoatarren, 1).

MARTITZENA 12

IKASTEN

10.00. "Monarquía frente a república" hitzaldia, Miguel Arroitauregiren eskutik. Armeria Eskolan.

ARATOSTEAK

17.00-18.30. Umeendako jolasak, Astixaren eskutik. Untzagan.
18.30. Sardinenaren entierri txikia, trikitalariekin.
18.30. Umeendako diskoteka DJ Arnorekin. Untzagako karpan.

HITZALDIA

18.00. Elikadura eta dietetikaren inguruko hitzaldia (izen-ematea informaziorako lehiatilan). Eroski Ipuruan.

GAZTA-DASTAKETA

19.00. Artisau-gaztaren dastaketa, Ramon Lizeaga gaztagilearekin (izena eman dutenentzat). ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuartea).

IRAKURKETA-KLUBA

19.00. Umeen irakurketa kluba: Txabi Arnal Gil. Umeen liburutegian.

EGUAZTENA 13

AURKEZPENA

11.00. Eibarko XXXVI. Antzerki Jardunaldien aurkezpena. Udaletxean (pleno aretoan).

KAFE-TERTULIA

11.00. Kafe-tertulia: "Accesibilidad". Untzagako jubilatu etxean.

EGUENA 14

IKASTEN

10.00. "Monarquía frente a república" hitzaldia, Miguel Arroitauregiren eskutik. Armeria Eskolan.

UMEENDAKO TAILERRA

17.30. Umeentzako San Balentin tailerra (3-12 urtekoentzat). Izen-ematea liburudendan. El Corte Inglés-ean.

IKASTEN

18.00. Joskintza tailerra. Portalean.

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Eraginkortasunez hitz egin eta entzun" hitzaldia (euskaraz). DBH Mogel Isasi ikastetxean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuz-ekoen entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HOROSKOPOA

ARIES

Arduratuta ibiliko zara egun hauetan. Hala ere, ez duzu edukiko urduri jartzeko arazo askorik; beraz, ez estutu.

TAURUS

Esku hotz horiekin, inork ez du zure besarkadarik jasotzerik nahi. Hoztasun hori ez da normala: agian gaixorik zaude.

GEMINI

Badatozela Aratosteak... eta zu mozorroa prestatu gabe! Eragiozu buruari, azken orduan zoroaren pare ez ibiltzeko.

CANCER

Azkenean ez da helduko aspalditik espero zenuen une hori. Bazenekien oso zaila zela ametsa betetzea, ezta?

LEO

Bista galtzen ari zarela dirudi. Noiztik ez duzu okulista bisitatu? Beturrekoak ez zaizkizu hain gaizki geldituko.

VIRGO

Baliteke dantzarako dohai handiak ez izatea, baina saiatzen zara behintzat. Erritmo biziaren soinura egokitu arte.

LIBRA

Aurrera jarraitzea da aukera bakarra; ez dago besterik. Beharbada, hurbil duzun pertsona baten laguntza jasoko duzu.

SCORPIUS

Ez duzu gogoratzen, baina aspaldian apostua egin zenuen... eta galtzaile irtten zara! Orain badakizu: zorrak kitatu!

SAGITTARIUS

Makal zabilta azken aldian, indarrik gabe, baina egoera hori laster aldatuko da. Astea ilusia handiarekin hasiko duzu.

CAPRICORNIUS

Krisiak krisi, zuri ez zaizu inoiz dirurik falta poltsikoan. Bankuek euren kudeaketa zuk txalata egingo balute...

AQUARIUS

Nahi duzuna egiteko libre zarela diozu askotan, baina noraino da hori egia? Uste duzuna baino kontrolatuago zaude.

PISCIS

Gauzak ezin dira beti zuk nahi moduan egingo. Egoerak txarrera egingo du eta zerbait egin beharko duzu horren aurka.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

- ✓ **Otsailaren 24ra arte**
"BIDE ZABALAK" hamar artisten erakusketa. Portalean.
- ✓ **Otsailaren 28ra arte**
JOSE LUIS MARTINEZ. "Portugal". Argazkiak. Portalea tabernan.
ISIDRE HUMET. "Insectos". Argazkiak. El Ambigú tabernan.

lehiaketak

- ✓ **Otsailaren 16ra arte**
INDUSTRIA-ARGAZKILARITZA DIGITAL LEHIAKETA.
Lanak aurkeztea eta informazioa: Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartean (Isasi, 36).
- ✓ **Otsailaren 17ra arte**
EUSKERAZKO BERBARIK ITSUSIENA AUKERATZEKO.
Lanak aurkeztea eta informazioa: AEK-n (eibar@aek.org) eta Euskal Euskaltegian (euskaltegiaeibar@telefonica.net).
- ✓ **Otsailaren 28ra arte**
MARTXOAK 8-KO EMAKUME LANGILEAREN EGUNAREN lan artistikoen lehiaketa.
Lanak aurkeztea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartearen bulegoan.
- ✓ **Martxoaren 12ra arte**
XVI. EGUEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETA. Lanak aurkeztea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartean (arratekultu@gmail.com edo 943-202299).
- ✓ **Martxoaren 28ra arte**
PORTADA LEHIAKETA. Gaia: XXX. Dia Das Letras Galegas Casa C. de Galicia "As Burgas", Roberto Vidal Bolañoren omenez. Saria: 100 euro. Lanak aurkeztea eta informazioa: casaasburgas@euskaltel.net edo 943-206737

farmaziak

- ✓ **barixakua 8**
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **zapatua 9**
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)
- ✓ **domeka 10**
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Ibarondo (Zeharkalea, 2)
- ✓ **astelehena 11**
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)
- ✓ **martitzena 12**
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- ✓ **eguztena 13**
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)
- ✓ **eguna 14**
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- ✓ **barixakua 15**
EGUNEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)
GAUEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiero eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.50etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiero. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiero.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Lanegun eta zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 16.40 eta 20.40.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

	2		5	9	7		6	
	5						9	
3		4				7		1
			2		8			
8				4				9
			3		9			
2		9				5		8
	1						7	
	8		4	2	1		3	

SUDOKUA

6	1	2	4	5	9	3	8	7
7	3	9	8	6	1	4	5	2
4	5	8	7	2	3	1	9	6
5	4	6	9	1	7	2	3	8
8	7	3	6	4	2	9	1	5
2	9	1	3	8	5	6	7	4
9	2	5	1	7	6	8	4	3
3	8	7	2	9	4	5	6	1
1	6	4	5	3	8	7	2	9

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Aldapa barik bizitzeko aukera ezin-hobe. Pisua salgai Fermin Calbetonen. Garaje-trasteroa aukeran. Tel. 646-680445.
– Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 2 logela eta garajea trasteroarekin. Tel. 660-735526.

1.2. Errentan

– Buhardilla alokagai Ubitxan. Igogailuarekin. Atonduta eta bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 620-611718.
– Bikoteak pisua behar du alokairuan. Tel. 688-867226.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Logela bakarrekoa ahal bada. Tel. 646-662911.
– Esteponan (Málaga) pisua alokagai, martxotik ekainera. Kaiaren eta hondartzaren alboan. Eguzkitsua. Tel. 645-728317 eta 943-201294.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Presazkoa. Tel. 686-420642.
– Senar-emazteek pisua hartu nahi dute Eibarren errentan. Tel. 686-739143.
– Logela bilatzen dut errentan. Tel. 615-303314.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Seat 600 salgai. Egoera ezin-hobe berrutik zein kanpotik. Beti garaje-an gordeta. 4.000 euro negoziagiariak. leirehs@hotmail.com

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Lokala salgai Eibar erdialdean. Egoera onean. Tel. 671-258740.

3.2. Errentan

– Aparkatzeko plaza alokagai Txomon. Tel. 658-710898.
– Lokala alokagai Otaola Etorbidean (1. solairua). 25 m². Komun berria. Baita koadrilentzat ere. Tel. 681-303507.
– Garajea alokagai Karmen kalean. Itxita. 18 m². Gauzak gordetzeko tokiarekin. Tel. 630-690317.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 672-278569.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, saltzaile moduan eta edozein lanetarako. Komertzio ikastaroa eginda. Tel. 617-800314.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 627-162936.
– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko (barran edo jangelan) eta altxairugintza metalikoan (aluminioa eta PVC) jarduteko. Tel. 943-257698.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (etxean zein ospitalean) eta etxeko lanetarako. Tel. 638-249775.
– Mutila eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko eta zurgin moduan jarduteko. Tel. 678-087407.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (etxean zein ospitalean) eta etxeko lanetarako. Tel. 609-463481.
– Emakumea eskaintzen da gauzez (21.00/22.00-09.00/10.00) nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 622-726879.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 648-180233.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 656-765916. M. Carmen.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-887814.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 663-911069.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-065683.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta obretako peoi jarduteko. Tel. 688-302653.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 699-569998.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta obretako peoi jarduteko. Erizaintzan eta Merkataritzan lizentziatua. Tel. 672-897815.
– Bi lagun eskaintzen dira lan egiteko. Hamasei urteko esperientzia enpresaritzan eta kontularitzan fiskal eta laboralean. Tel. 617-332310 eta 655-715050.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, 16.00etatik 19.30era arte. Esperientzia. Tel. 690-359554.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 605-720298.
– Emakumea eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Geriatria ikastaroa eginda. Esperientzia. Tel. 680-526228.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 686-052084.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-420642.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta nagusiei laguntzeko. 15.30etatik 21.00ak arte. Tel. 671-478823.
– Neska eskaintzen da administrari jarduteko, saltzaile moduan eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 671-225189.
– Neska euskalduna eskaintzen da kamarera jarduteko asteburuetan. Esperientzia. Tel. 630'-259800.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-567680.
– Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 13.00etatik 17.00ak arte. Tel. 618-875007.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 629-872270.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko Interna. Tel. 664-009684.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta saltzaile jarduteko. Tel. 688-691544.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 636-247429.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, soziedadek garbitzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 633-843512.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta soziedadek garbitzeko. Baita gauzez eta asteburuetan. Tel. 689-436454.– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-341238.
– Neska eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko. Tel. 669-930282.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-884104.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 622-162798.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita erresidentzian ere. Geriatria-laguntzaile tituluarekin. Tel. 632-770872.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita erresidentzian ere. Tel. 662-012834.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 686-739143.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Euskarazko klaseak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketetarako prestaketa, profilak, HABE, EGA. Tel. 620-608065.
– Atzerriko hizkuntzan diplomatuak klase partikularak ematen ditu LH eta DBH mailakoentzat. Tel. 651-503971.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Jaunarteko soinekoa salgai. Egoera ezin-hobe. Tel. 671-258740.
– Ostalaritzako tresnak salgai negozioa lagatzeagatik: kafetegia, izotz-makina, ... Tel. 665-720977.
– Mutikoarentzako bizikleta salgai (3tik 8 urtera). Berria. Urdina. Tel. 617-256466.

ARATOSTIETAN BE TABERNETAN DOZU...

GURIDI



Reala
Athletic
derbia

AGUIÑASPI



Egiptoko misterioa

KULTU



Ezti ederrena
dastatzeko

TAS-TAS



Eskerrik asko,
Petrov!

TXOKO



Alaitasunaren
erreinua

ARATOSTEAK - 2013



San Juan kalea, 4ac - Eibar

VIVALDI



Terrorearen
etxea

**GIRORIK
ONENA!!!**

ZERBITZUA

ADMINISTRAZIOA

BILERAK

GESTIOA

EUKi

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

ZEZEN BIDE

AUTO ESKOLA

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR